

# PLAZA BERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKARIA

18-10-05 26. ALEA

Hondakinen  
sentsibilizazio  
kanpaina

3. ORR. ►►

Erraldoien konpartsa,  
Zizurkilen izena zabaltzen

8. ORR. ►►

Festak  
argazkitan

11. ORR. ►►

1.000.000

15 urtean lehen aldiz  
milo eurotik behera jaitsi da  
Udaleko zorra

4. ORR. ►►

## ARGAZKI BILDUMA

# Egun berezia ospatu zen iraila hasteko

Jaien atariko, emakumeen lehenengo Melokotoi errugbi txapelketa ospatu zen Danenako zelaian. Euskal Herriko bost taldek hartu zuten parte eta nahi zuten neska guztiek probatu ahal izan zuten errugbian aritzea zer den. Txapelketarekin bat, auto eta moto klasikoek topaketa egin zen eta ondoren guztiek elkarrekin bazkaldu zuten. Argazki bidez hainbat une jaso ditugu.

2



# Sentsibilizazioa oinarri duen hondakinen programa bat martxan da

Egun, Zizurkilen, hondakinen tasa ezberdinak daude etxe bakoitzean egiten den kudeaketaren arabera. Hau da, hondakinen sorkuntzaren araberrako tasa-sistema batera hurbiltzen saiatu da Zizurkilgo Udala, eskura dituen baliabideak erabiliz. 2018. urtean 35,5€/hiruhileko tasa kobratzen da etxe bakoitzeko, eta bi hobari mota daude: birziklatzeagatik hiruhileko bakoitzeko 10,45 euroko tarifa-murrizketa aplikatzen da, eta birziklatzeaz gain etxeeko konposta edo auzoko konposta egiten duten etxeetan 15,80rainoko tarifa-murrizketa egiten da.

Azken bi urte eta erdiko hondakinen datuei begiratu-ta, hondakin kopuru gordinari begiratzen badiogu, ez da ez goranzko ezta beheranzko tendentziarik ikusten. Hau da, hondakin kopurua (pisuan) antzeko mantentzen da azken urtetan. Hondakin kopuruari dagokionez

Tolosaldeako beste herrien antzera aurkitzen da Zizurkil. Azken bi urte eta erdian, biztanleko eta eguneko 0,62 eta 0,91 kg/biztanle/eguneko hondakin kopurua bildu da. Birziklatze tasaren eboluzioari begiratzen badiogu berriz, azken bi urte terdian %60tik gorako birziklatze-tasa du Zizurkilek baina aldaketa handirik gabe. Egoera hau hobetu asmoz, urritik aurrera hondakinen sentsibilizazio programa jarri da martxan hainbat helbururekin: Sortzen den hondakin kopurua murriztea, birziklatze tasa handitzea, hondakinen ikuspegi negatiboa aldatzea eta ohitura osasuntsu eta arduratsuak sustatzea, besteak beste. Helburu nagusi hauek lortu ahal izateko, helburu zehatzak ere finkatu dira 2017ko martxoan lortu zen Udal akordioari jarraituz, eta honela, Zizurkilgo etxeak bisitatzeko ardura hartuko du hezitzaile batek datozen sei

hilabeteetan. Laguntza eskaini eta zalantzak argitzeaz gain, datu basea egunerako da eta konpostagailua duten kasuan horien jarraipena egingo da. Horrez gain

berrerabilpena sustatzeko bi tailer eta karakterizazio publiko bat egitea ere aurreikusten dira. Guztion aha-leginarekin, posible delako.

## Aterpeko lanak martxan



2018ko aurrekontuetako inbertsiorik nagusiena den aterpea datozen bi hilabeteetan egitea aurreikusten da. 178.000 €ko kostua izango du azkenean lehiaketa publikoa irabazita *Pórtico y Gestión* enpresak egingo duen lanak. "Pazientzia" eskatu du alka-teak lanek iraun bitartean baina azkenean estalpea izango du Elbarrenako erdiguneak, auzotarrek eurek zuten eskaria betez.

3

## En marcha un programa de sensibilización sobre los residuos

Con el objetivo de mejorar los datos de reciclaje y disminuir los residuos generados por habitante, el Ayuntamiento de Zizurkil ha puesto en marcha un programa de sensibilización, tal y como se acordó por la mayoría del pleno municipal en marzo del

2017. Si miramos a los datos de los últimos dos años, la cantidad de residuos generados en Zizurkil no ha cambiado y es similar al resto de los municipios de Tolosaldea. En cuanto al reciclaje, tampoco ha variado el porcentaje, que, pese a que es superior al 60%,

es manifiestamente mejorable. En los próximos 6 meses, una educadora de la mancomunidad visitará los hogares del municipio ofreciendo su ayuda y aclarando las dudas que pudiera haber. Además, se verificará la base de datos que da opción a bonificacio-

nes fiscales a las personas que reciclan, que hoy en día benefician a un 70% de los y las zizurkildarras. En cuanto a los hogares que realizan el auto compostaje, se hará un seguimiento y también se prevén realizar dos talleres sobre la reutilización.



# “2011an zuen zorraren herena baino gutxiago du orain Udalak”

900 mila euro pasako zorra du gaur egun Zizurkilgo Udalak. 2003tik 2010era urtero mailegu bat eskatu ostean, azken zazpi urteetan mailegurik gabe ari da diru kontuak ixten Udala. Joxe Mari Luengo alkateak eman dizkigu egindako lanaren argibideak.


2011ko ekainean Udalean aurkitutako panorama ekonomikoa ez du ahazteko Joxe Mari Luengo alkateak. "Batetik, krisi bete betean sartuta ginen Udalean, eta bestetik, zor izugarria topatu genuen: Zizurkilek biztanleko 1.000 euro pasako zorra, 3 milioi euroko zorra eta gainera foru aldundiarekin zegoen aparteko zorra eta atzeratutako faktura mordoa. Horrek guztiz baldintzatu gaitu urteotan". Hasieran hartu ziren erabakiak ez zirela errazak izan gogoan du Luengok. "Arlo guztietan gastua murriztu behar izan zen, inbertsioetan eta kultur

### «Diru gutxiagorekin zor handiari egin behar izan genion aurre»

ekitaldietan esaterako. Eta kontratu guztiak gainbegiratu eta merketu genituen. Kontuan hartu behar da gainera 3 milioi bueltako aurrekontuak izan genituela urte horietan, aurretik zituztenak baino bajuagoak. Beraz diru gutxiagorekin zor handiari egin behar izan genion aurre».

### Aurrekontu zehatzak

Nola lortzen da 8 urtez urtero hipotekatzen ari zen Udal bat mailegurik eskatu gabe funtzionatzen jartzea? Txingurri lana aipatu du Luengok. "Udalean ikasi da aurrekontuak beste era batera egiten. Ez aurrekontua egin eta ondoren mailegu bat eskatu. 2011tik hona mailegurik ez eskatzeak esan nahi du aurrekontu zehatzak egin direla, inbertsioak ia beti diru laguntzek lagunduta egiten ahalegindu gara. Horrek moteldu dezake inbertsioa egiteko epea bera, baina guk ez dugu beste aukerarik izan. Eta noski le-



\*2018-08-31 datako zorra

## ERREPORTAIA

### Azken 4 legealditan eskatutako maileguak

ESKAERA URTEA año de inicio	MAILEGUA (€) préstamo
2003	495.038€
2004	731.185€
2005	238.305€
2006	116.000€
2007	596.770€
2008	514.500€
2009	670.000€
2010	130.000€
2011	0,0€
2012	0,0€
2013	0,0€
2014	0,0€
2015	0,0€
2016	0,0€
2017	0,0€
2018	0,0€*

\*Aurreikuspena

**«Aurrekontu zehatzak egin dira, inbertsioak ia beti diru-laguntzekin»**

hen aipatu bezala hainbat arlotan murrizketak eginez eta fakturen etengabeko merketzea bilatuta”

Aurtengo urtea ere mailegurik eskatu gabe eta 859.000 euro inguruko zorrarekin

amaitzea aurreikusten du Zizurkilgo Udalak. 2002ko abenduan izan zen azken aldiz Udaleko zorra milioi bat euroz azpikoa. “Udal honek milioi bateko zorra edukitzea ohikoa dela esango nuke, baina beti ere saiatuz milioi

**«Udala egoera ekonomiko normal batean hartuko du ondorengoak»**

hortatik asko ez igotzen, azken finean aurrekontuaren herena da milioi bat”. Baina ondorengo ere gaineratu nahi izan du alkateak: “Ez dugu baztertzen legealdia amaitu aurretik inbertsioren baterako zorpetzea. Hemen-dik aurrera tartean behin horrelakoak egiteko aukera izango du Udalak, baina beti ere mailegua inbertsio jakin baterako eskatuz, eta ez gastu orokorretarako erabiliz. Zorri neurrian eutsiz egin behar dugu lan, hala ikusten dugu behintzat guk. Azken finean, Udalean ere gure etxeko diru kontuekin egingo genukeena egitea da gakoa, ez besterik”.

#### Ahalegin handia

Atzera begira jarrita zorraren ordainketa izan da azken bi legealdietako ahalegin ekonomiko handiena. “Bi legealditan guztira 3.195.925 euro

## La deuda del Ayuntamiento ha bajado de un millón de euros, por primera

La deuda actual del Ayuntamiento de Zizurkil es de 900.000 euros, la menor en las últimas legislaturas. Desde 2003 a 2010 el Ayuntamiento se hipotecó año tras año, pero en los últimos 7 se han cerrado las cuentas anuales sin pedir ningún tipo un préstamo.

El Alcalde Joxe Mari Luengo no olvida la situación econó-

mica que encontraron en el Ayuntamiento en junio del 2011. “Por un lado, la crisis económica era total, y por otro lado, el Ayuntamiento tenía una deuda enorme: Más de 1.000 euros por habitante, es decir, 3 millones de euros de deuda con los bancos y, además, más de 300 mil euros de deuda con la Diputación y fac-

turas atrasadas sin pagar. Esa situación nos ha condicionado todo este tiempo”. Las decisiones que se tomaron tras percatarse de la situación económica no fueron fáciles. “Se tuvo que reducir el gasto en todos los ámbitos, inversiones o programación cultural, entre otros. Y se supervisaron todos los contratos y convenios


para rebajarlos en la medida de lo posible. Hay que tener en cuenta que además de la deuda, teníamos unos presupuestos considerablemente inferiores por la crisis”.

#### Deuda bajo control

El Ayuntamiento prevé finalizar este 2018 sin pedir ningún préstamo y con una deuda de

**Urtero aurrekontuetatik zorra ordaintzera bideratu dena**

Cantidad destinada cada año a pagar la deuda



«2002ko abenduan izan zen azken aldiz milioi euroz azpiko zorra Udalean»

aurrekoek utzitako zuloa esaltzera bideratu dugu. Eta bidezkoa da esatea, nahiz eta inoiz ez dugun jakingo, zer egiteko gai izango ginatekeen motxila astun hori gainean izan ez bagenu. Urtero 300.000 euro inguru (hasierako urteetan gehiago) zo-

rraren ordaintzera bideratu behar izan ez bagenu. Hasteko eta behin, ur handitan sartu gabe, aspaldi egingo genituen hainbat proiektu, orain egiten ari garen aterpea eta Zizurkilgo P.M. Otaño plazakoa esaterako. Eta hori ere esan egin behar da”.

Legealdiko azken txanpan sartuta, alkateak nabarmendu du Udala egoera ekonomiko “normal” batean hartuko duela ondorengoak. 8 urteetan egin den lan isilaren fruitua da, kalean ikusten ez den lana baina ezinbestekoa.

**a vez en 15 años**

859.000 euros. “Consideramos que tener una deuda de alrededor de un millón de euros es habitual y aceptable, siempre y cuando esté bajo control. Podríamos pedir préstamos para inversiones concretas, pero no para cubrir gastos corrientes”, remarca Luengo.

Revertir la tendencia de un organismo que se estaba

endeudando durante 8 años seguidos no es fácil. El alcalde habla de cambiar la forma de idear los presupuestos. “En el Ayuntamiento todos hemos aprendido a realizar los presupuestos de otra manera. En vez de elaborar los presupuestos y luego pedir un préstamo como norma, hemos sabido realizar los presupuestos ajus-

tándonos a la realidad. En el caso de las inversiones, hemos tratado de realizar aquellas que pudieran tener una ayuda de otra entidad. Eso puede alargar los plazos, pero nosotros no hemos tenido otro remedio”. En dos legislaturas, el Ayuntamiento ha gastado alrededor de 3.195.925 euros en cubrir la deuda. “Es legítimo

preguntarse, aunque nunca obtendremos la respuesta, qué hubiéramos podido hacer con ese dinero. Por lo menos, tenemos la satisfacción de que el siguiente Gobierno municipal va a encontrar una situación económica normal, habitual en un Ayuntamiento, y no uno de excepción como el que hemos tenido”.

# Auzolanak handi egin dituen erraldoiak

Duela lau urte Zizurkilgo lehen erraldoi eta buruhandiak aurkeztu zirenetik, ohiko bihurtu zaizkigu herriko ospakizunetan eta baita ingurukoetan ere: "politena ezerezetik zerbait sortzeko egon den inplikazioa izan da". Iker Urruzolak Zizurkilgo Buruhandi eta Erraldoien Konpartsako kideak azaldu digu egitasmoa.

8



"Irunera joan gara, Añorgara, Adunara...", azaldu du Iker Urruzolak, Zizurkilgo Buruhandi eta Erraldoien Konpartsaren sorrera eragin duen kideak. Oraindik ere badituzte hitzorduak urtea amaitzerako: "Nafarroako Murillo el Fruto herrira goaz urriaren 20an konpartsen topaketa batera", eta aipatzekoa da, Euskal Herri mailan erreferente den Azpeitiako topaketan ere parte hartu izan duela Zizurkilgo taldeak.

Duela lau urte aurkeztu ziren Zizurkilgo lehen erraldoi eta buruhandiak: "boom txiki bat badago eta deitzen gaituztenean aukera daukagun guztietan joaten gara". Lehenagotik dator, ordea, konpartsa sortzeko hazia. Elbarrenako jaietan melokotoiaren maskota tarteko konpartsa bat sortu zen haren inguruan.

"Melokotoia paseatzeko karroza egiten genuen: 2011n itsasontzia egin zen, 2012an Nafarroako konkistaren 500. urteurrenagatik gaztelua, eta hurrengo urtean tronua", azaldu du Urruzolak. Ekaineko lehen egunetatik hasita, arratsaldeak eta astebukaerak karroza egiteko lanetan murgilduta pasa izan ditu. "Nire aitak ere asko lagundu dit", gehitu du, "eta horrelaxe sortu zen zerbait egiteko ideia hori".

Joxe Mari Luengo alkatearekin izandako elkarrizketa batetik piztu zen egitasmoa. Karrozarena urteroko lana izanik, Joxe Mari esku artean zer ote zuen galdetu zion Ikerri. "Esan nion hurrengo urtean erraldoi bat egin behar nuela", eta ideiak erakarrita, auzolanegiteko proposamena bota zion alkateak: "Zizurkilgo Udalarari esker ez balitz, herriak

## Los gigantes de Zizurkil, resultado de una enorme implicación ci

Los primeros gigantes y cabezudos de Zizurkil se presentaron hace cuatro años. Desde entonces, la comparsa se ha convertido en uno de los ingredientes indispensables en las celebraciones de Zizurkil y alrededores; incluso

han participado en el encuentro de comparsas de Azpeitia, referente en el País Vasco.

El origen de la idea, sin embargo, viene de mucho antes. En la fiestas de Elbarrena se creó una comparsa alrededor de la mascota de las fiestas

de Aranzazu, el Melocotón: "A partir del 2011 empezamos a elaborar carrozas para pasear al Melocotón y ahí comenzó la dinámica de crear algo cada año", nos ha explicado Iker Urruzola, miembro fundador de la comparsa de

cabezudos y gigantes de Zizurkil.

"El alcalde Joxe Mari Luengo me preguntó que tenía entre manos y le comenté que al año siguiente tenía intención de hacer un gigante; en ese momento me dijo que lo ha-



## «Urriaren 20an Murillo el Fruto herrian izango gara»

ez luke konpartsa hau izango. Alkateak esan zidan auzolanean gauzatuko genituela, eta Udalak ere bat egiten zuela».

Egitasmoari ekiteko lehen ideia bat egin zuten biek baina gerora Añorgako erraldoiak ezagutzeko aukera sortu zen. «Arantxa Bakero bizilagunak galdetu zidan ea zertan ari ote nintzen eta esan nion zein zen gure asmoa. Hark esan zidan Goizuetako erraldoiak bere familiaren etxean zeudela eta haien bidez joan ginen Añorgara». Añorgan bada erraldioen konpartsa eta hangoen euskarriak eta egiturak ikusi zituzten Joxe Marik eta Ikerrek, argazkiak atera, neurriak hartu, eta handik Iruneko Garatera bideratu zituzten, han egiten baitituzte buruak.

«Galdetu ziguten ea zein motatakoak nahi ote genituen eta azaldu genien Zizurkilek bi gune ezberdin zituela, nekazal girokoa bata eta industrialagoa bestea, eta biak lotuko

zituena zerbait nahi genuela», gogoratu du Urruzolak. Horien aurretik, ordea, katalogoko bi aukeratu ziren eta bieie ere berehala joan zitzaizkien begirada bikote baserritarrengana. Horiek izango ziren gerora prozesu parte-hartzaile baten bidez, Zizurkilgo herritarrek izendatu zituzten Bernarda eta Maurizio. Erraldoi haiekin batera eskatu ziren buruhandiak ere: katalogoan jasota zeuden bi, eta gero Zizurkilgo herriarekin zerikusia zuten pareak. Bi guneen arteko lotura eginez, Melokotoiaren eta Txepetxaren aldeko apustua egin zen.

### «Gureak, zein politikak diren»

Buruhandiekin egin bezala, herriarekin zerikusi zuzena zuten bi erraldoi ere gauzatu ziren: «Pello Mari Otañorena argi geneukan; eta osatzeko bigarren erraldoia nahi genuen, herriko erreferente litzatekeena», azaldu du Urruzolak. Hala, Hernandorena Kultur Elkartearengana jo zuten eta hango kideek egin zuten proposamena: «Joxin Azkuek berehala proposatu zigun Joakina Galarzaren izena: emakume langilea, Elbarrenakoa, elkartasuna erakutsi zuena... proposa zen».

Hernandorenarekin egin bezala, ate asko joa dituen konpartsa sortzerakoan herriak parte hartzea. Beste herrietako esperientzietan, esate baterako, jantziak herriko jubilatuek egin zituztela jakin zuten eta hori ere izan zen pizgarri Zizurkilgo Jubilatuen Elkartera jotzeko: «proiektua azaldu genien eta gustura hartu zuten. Tartean jostunak bazeuden eta haiek eta Tere eta Garbiñe Zalduek egindako lana... ezin da hitzez eskertu», adierazi du Urruzolak. «Politena ezerezetik zerbait sortzeko egon den inplikazioa izan da. Auzolanean egindako gauzak norberak bere sentitzen ditu, eta kalean

ikusterakoan harrotasuna sentitu: Begira zein politikak diren gureak! Gureak, egin duen ekarpen horren baitan. Eta haurren irribarrea konpartsa-aren inguruan, eta jende ugari atzetik... aberasgarria da oso», azpimarratu du.

### Parte hartzeko atek zabalik

Hiru atal dituen konpartsa: erraldoiak, buruhandiak eta musikariak. Normalean txandaka egiten dituzte irteerak kideek, baina guztiak elkartzuz gero, 30 bat lagun izango dira. Parte hartu nahi duen orok atek zabalik dituela argi utzi du Ikerrek.



## udadana

ríamos con la participación ciudadana y que el consistorio también se implicaría en el proyecto», nos detalla.

Contaron con la ayuda de la comparsa de Añorga que los pusieron en contacto con los Garate de Irún, que se

dedican a la fabricación de cabezas para los gigantes y cabezudos. Se crearon dos gigantes y dos cabezudos a partir de los patrones del catálogo y otra pareja de cada uno de los formatos con relación directa a la localidad y

sus dos núcleos urbanos. Así surgieron los cabezudos del Melocotón y Txepetxa, y los gigantes de Pedro María Otaño y Joaquina Galarza.

Tanto eligiendo a los personajes, como en la creación de ellos y sus ropas, han par-

ticipado varias asociaciones y vecinos y vecinas de Zizurkil, lo que, según Urruzola, ha hecho grande este proyecto: «es increíble qué lazos se crean con el proyecto a partir de la aportación personal de cada uno».

# 50 postu inguru eta Harri Handien Gipuzkoako Txapelketa, aurtengo Azoka Berezian

Urriaren 14an egingo da herrigunean Zizurkilgo Azoka Berezia. Ohi bezala, doako garraio zerbitzua izango da Elbarrenatik igotzeko.



**Aurreko urtean euria izan zen protagonista.**

Egurrezko jostailuak, uken-  
duak, cava ekologikoa,... dene-  
tarikoa lehengai eta produktua  
topatuko ditugu XXI. Azoka  
Berezian. 50 postu inguru koka-  
tuko dira herrigunean, horie-  
tako erdiak barazki eta janariari  
loturikoak, eta beste erdiak  
materialaren lanketa artisauari  
loturikoak.

“Herriko bi artisauek izango di-  
tugu eta janari postuei dagokio-  
nez lau herritar”, azaldu du Maite  
Amenabar Zizurkilgo Udaleko  
zinegotziak. Beste lurraldeetako  
baserritar eta artisauek ere

agendan ondo apuntatuta dute  
Zizurkilgo hitzordua: hala, he-  
goaldeko zein iparraldeko lur-  
raldeetako ordezkariak izango  
ditugu gurean.

Salerosketarako eta dastake-  
tarako postuak bakarrik ez, eta  
bakoitzaren abileziak proban  
jartzeko eta ikasteko tailerrak  
ere izango dira: “zeramika eta  
liho tailerra eskainiko dira goi-  
zean; eta arratsaldean, janari  
osasungarriari eta birziklapena-  
ri buruzkoak”. Gainera, erakus-  
ketak ere atonduko dira: forja,  
beira eta lihoaren lanketa izan-

go dituzte gai. Etxeko txikie-  
nentzako puzgarriak eta poniak  
izango dira.

10:30ean zabalduko da  
azoka 19:00ak arte, tartean  
14:30etik 16:30era atseden  
hartuz. Azokaren aitzakian,  
ordea, egitarau betea prestatu  
ohi da, eta, eguerdian postuak  
itxita, bazkari herrikoia egin-  
go da Zimiterioan. 15 euroren  
truke txartelak Iriarte eta Ega-  
rri tabernetan eskuratu ahal  
izango dira aurrez.

Arratsalde erdirako azoka  
goitik behera eta behetik gora

arakatu duenak 18:30etik au-  
rrera bestelako plana ere izango  
du: Harri Handien Gipuzkoako  
Txapelketa egingo baita.

Goizean azoka ireki aurretik  
eta arratsaldeko azken ordura  
arte autobusak ariko dira la-  
nean Elbarrenatik herrigunera  
jendearen joan-etorria erraz-  
ten: “Bulandegi bideko biribil-  
gunean edo Zubiaurretatik  
izango dira autobusak, 10:15-  
15:00ak bitarte goizean eta  
16:30etik 20:30era arratsaldean”,  
xehatu digu Amenabarrek.

Gorde, beraz, urriaren 14a.

## Plazida Otaño oroitz ekitaldia, bezperan

Egitaraua Azoka Bereziko  
egun osora ez ezik, bezpe-  
rara ere zabaldu da. *Plazida  
Otaño oroitz. Emakumeen  
isilpeko emaria* ikuskizuna  
eskainiko da. Arte diziplina  
ezberdinak batuko dituen  
emanaldia izango da, Zizur-

kilgo Zimiterioan 18:30ean  
hasita.

Plazida Otaño eta herriko  
ondare den Gorritiren Base-  
rriko Argia eskulturak topo  
egingo dute herriko plazan,  
emakumeen isilpeko emaria  
gogora ekartzeko asmoz.

## El 14 de octubre se celebrará el mercado especial de Zizurkil

A partir de las 10:30 abrirá  
sus puertas el mercado espe-  
cial de Zizurkil que se celebra  
anualmente en la parte de  
arriba de la localidad. Habrá  
alrededor de 50 puestos que  
contará con baserritarras  
y artesanos y artesanas de  
todo el País Vasco: juguetes  
de madera, ungüentos, cava

ecológica... una gran gama  
de materias primas y produc-  
tos artesanales tomarán el  
pueblo.

Habrá además tres expo-  
siciones para mostrar el pro-  
ceso de manipulación de la  
forja, el lino y el vidrio, y ta-  
lleres para trabajar el lino y la  
cerámica, y aprender más so-

bre la alimentación saludable  
y el reciclaje. Los hinchables  
y ponys para entretener a los  
más pequeños y el Campeo-  
nato de Gipuzkoa de Levan-  
tamiento de Piedras Grandes  
completan el programa del  
día.

El mercado estará abier-  
to desde las 10:30 hasta las

19:00, cerrando al mediodía  
entre las 14:30 y 16:30. Habrá  
servicio de autobuses gratis  
a disposición de los vecinos  
y vecinas que quieran acudir  
al mercado: entre las 10:15-  
15:00 y 16:30-20:30. Parará  
en la rotonda de Bulandegi y  
Zubiaurretxo.



## ARGAZKI BILDUMA

# Aurtengo festak, iruditan

2018ko jaiek egin dute berea herrigunean bezala Elbarrenan. Momentu on ugari utzi dizkigute bi festa batzordeek egiten duten lanari esker. Datorren urtean gehiago!



Indarkeria matxistaren aurkako mezu ozenarekin hasi ziren bi jaia.



Maialen Lujanbiok 20 urte bete ditu amabirjinetakoko bertso saioan.



Txikienek majo gozatu zuten jaietako azken egunean.



En Tol Sarmiento taldearen kontzertuak arrakasta handia izan zuen.



Ohi bezala, ehunka lagun elkartu zen festetako larunbateko herri bazkarian.



Goitibehera jaitziera berreskuratu da aurten, ezusteko gonbidatu eta guzti.

# ALATZNE ETXABURUA



## “Emakumeak lehendik bazeuden herri kiroletan, azken urteetan etorri da aitortza”

Kalekumea deitzen dio bere buruari, baina segan nagusi izan da azken urteetan Tolosan jaio eta Zizurkilen bizi den emakume irribarretsua.

**Tolosarra sortzen, ha-markada bat daramazu Zizurkilen bizitzen. Eta Zizurkilek izan du zerikusirik du sega munduan has-tearekin ezta?**

Bai, erabatekoa. Herriko jaietarako Naroa Gerestak aipatu zidan zergatik ez nintzen animatzen bikoteka sega frogatzen. Egun batean geratu, Joxe Gabirondo azaldu zen guri erakustera, egin genuen frogatzen eta gustatu egin zitzaidan. Festetan egin eta jarraitu egin nuen. Segaz gain, trontza eta aizkoran ere ibili naiz baina sega izan da nire tresna kuttuna.

**Hasi bazinen hasi, txapel eta garaikur sorta bildu duzu, azkena aurten bertan Euskal Herriko txapela. Duela urte batzuk esan balizute...**

Ez nuen sinestuko. Jakin bai saiatuko nintzela, oso saiatua naizela helburu bat jarritz gero, baina lortu dudana lortzea, keba!

**Emakumezkoen arteko lehen herri kirol apustu ofiziala ere irabazi zenuen 2015ean Irati Astondoaren aurka. Historian baduzu lekutxo...**

Momentuan ez ginen

hainbeste jabetu, geroago igual gehiago. Apustu aurretik hedabideek arreta dezentea eman zioten baina ondorengo ikaragarria izan zen, zenbat elkarriketa eta goraiapamen. Egun polita izan zen. Aizkoran, hain zuzen, apustu horretarako hasi nintzen, bi kiroletara egin nahi genuen eta aizkora erabaki genuen biok aurrez landu gabeko kirola zelako.

**Atzekoentzat bidea ireki duzuela esango zenuke?**

Emakumeak lehendik ere bazeuden herri kiroletan, gertatu dena da nolabait aitortza gurekin batera etorri dela. Euskal Herriko sega txapelketa luzekoa duela 5 urte egin zen lehen aldiz, baina aurrez ere baziren segariak. Badatoz emakumeak atzetik, ez asko, ez baita erraza sega edo herri kirol mundua eta zure bizitza uztartzea baina ziur naiz jarraipena izango duela.

**Egun edo garaikur bat aukeratzeko esango bazu...**

Apustuko eguna berezia izan zen baina 2012ko egun bat aipatuko dizut: Zizurkilen jokatu zen Azkartasuneko Gipuzkoako Segatzen

Txapelketa irabazi nuenekoa. Orduan punta puntan zebilen Arrate Garini irabaztea handia izan zen. Eta beste momentu kuttun bat, Zizurkilgo jaietako lehen egunean, Irantzu ilobak aureskua dantzatu zidanekoa. Ederra da aitortza hori sentitzea.

**Herri kiroletatik ezin da bizi, derrigor gustatu egin beharko da, ezta?**

Gustatu derrigor. Ez dago bestela modurik. Eta behar duzu inguru bat... Joxe Gabirondo hasieran, eta bereziki Igor Esnaolak ondoren asko lagundu didate. Jakintza handia dute herri kiroletan eta niri erakutsi didate denbora pila bat eskainiz. Askotan esan izan dut nire lorpenen zati handi bat Igorrena ere badela. Juantxo eta Rosa Amasakoak ere gogoratu nahi nituzke, entrenatzeko aukera emateagatik urte guztietan. Baina eskertzen hasita noski bereziki etxekoei eman behar dizkiet eskerrak, gurasoei, eta nola ez Xantiri, eurek jasan nautelako momentu on eta txarretan. Momentu onak denen artean ospatzen dira baina txarretan gertukoekin ordaintzen

duzu, eta eskertza merezi dute.

**40 urte bete dituzu eta gorenear egonda uztea erabaki duzu, zergatik?**

Lesioengatik. Gerrian arazoak ditut kiste bat dela eta. Ondorioz, hiru entrenamendu segidan eginda mina sumatzen dut. Ni beti entrenatuta atera naiz plazara eta gaizki entrenatuta ateratzekotan nahiago dut etxean geratzea.

**Esaiguzu...**

**Zizurkilgo txoko bat:** Aundi baserria eta inguruak. Bertan atera genituen ezkontzako argazkiak eta leku berezi eta ederra da niretzat.

**Pertsonaia bat:** Unai Mendizabal. Kirol munduan aberastasun handia dago Zizurkilgo goiko partean, aizkolariak, segariak, txirridulariak, mendi lasterkariak, pelotariak... baina horiek guztiak bertso batean Unai sartu ditzake! Zoriontzekoa da bertsotan egiten ari den bidea.

**Zer dago faltan? Eta zer soberan?** Oso gustora bizi naiz Zizurkilen. Ez nuke ezer aipatuko.

B



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria  
Herritarren Parte Hartze  
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:  
SS-1118-2011

Harremanetarako:  
plazaberri.zizurkil@gmail.com  
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,  
Teodoro Hernandezena 6,  
20.159 Zizurkil.  
Tel. 943-691012  
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak,  
Ernio Bidea 9A, behean,  
20.159 Zizurkil.  
Harrera Orokorra  
Tel. 943-693066  
Kultura, Euskara, Hezkuntza,  
Gazteria y Kirola Saila  
Tel. 943692495  
Fax 943-693674.